



SINATZAILEA

Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2026/04/20

NIF: P3105000H

Espedientea 109952M

2026ko MARTXOAREN 26ko OHIKO OSOKO BILKURA**SESIÓN PLENARIA ORDINARIA DE 26 DE MARZO de 2026**

Baztango Udaletxeko Bilkura Aretoan, 2026ko martxoaren 26an, 19:00etan, Baztango Udala osoko bilkuran bildu da, ohiko bileran, Fernando Anbustegi Goñi jauna alkate-udalburu dela, eta zinegotzi hauek etorri dira: Mariano Iribarren Irigoyen, Lorea Lizarreta Insausti, Elisa Almandoz Irigoien, Gorka Urtaşun Saldias eta Alaitz Arretxea Etxeberria, EH-BILDU taldekoak; Florentino Goñi Tellechea, Iñigo Iturralde Eliceche eta Joseba Moreno Videgain, ZUREKIN-CONTIGO BAZTAN taldekoak; Pello Sarratea Sanzberro, BAZTANGO INDEPENDIENTEAK - INDEPENDIENTES DE BAZTAN taldekoak; Anastasio Nagore Garralda, UPN; taldekoa Lander Mattin Santamaria Alcocer, GEROA BAI.

Idazkari lanetan Iulen Urbiola Loyarte jauna aritua da.

Ez da bertaratu: Andoni Irigoyen Maritorea
Alkateak hasiera eman dio bilkurari.

1.- 2026/02/26KO OHIKO OSOKO BILKURARI DAGOKION AKTA ONARTU.
Etorritakoak bat eginez 2026/02/26ko ohiko osoko bilkuraren **akta aho batez berretsi dute.**

2.- 2026. URTERAKO OHIKO AURREKONTU-PROIEKTUA AZTERTU ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTU.

Udalbatza honen aurrekontu arrunta eta dagozkion gauzatze-oinarriak aztertu dira, bai eta haren mendeko erakundeak ere, Baztango Udal Ikastola eta Francisco Joaquin Iriarte Zahar-etxea. Halaber, Giltxaurdi SM, Lixura Baztan SM eta Zaintza Lanak Baztan SM enpresa publikoen 2026ko ekitaldirako gastuen eta diru-sarreraren aurreikuspenak aztertu dira.

Aurrekariak azalduz, arrazoiak eta ondorioak aurkeztuz, Udalbatzako kideek aipatutako gaiak beren iritzia eman ondotik, bilkura honi dagokion soinua fitxategian bildua.

En la Sala de Sesiones del Ayuntamiento del Valle de Baztan, siendo las 19:00 horas del día 26 de marzo de 2026, se reúne, en sesión ordinaria el Pleno Municipal, presidido por el alcalde-presidente Fernando Anbustegi Goñi y con la asistencia de los siguientes concejales: Mariano Iribarren Irigoyen, Lorea Lizarreta Insausti, Elisa Almandoz Irigoien, Gorka Urtaşun Saldias y Alaitz Arretxea Etxeberria, por el grupo EH-BILDU; Florentino Goñi Tellechea, Iñigo Iturralde Eliceche y Joseba Moreno Videgain por el grupo ZUREKIN-CONTIGO BAZTAN; Pello Sarratea Sanzberro, por el grupo BAZTANGO INDEPENDIENTEAK-INDEPENDIENTES DE BAZTAN; Anastasio Nagore Garralda, por el grupo UPN; Lander Mattin Santamaria Alcocer por el grupo GEROA BAI.

Actúa como secretario D. Iulen Urbiola Loyarte.

No asiste: Andoni Irigoyen Maritorea

El alcalde da comienzo a la sesión.

1.- APROBACIÓN DE ACTA DE SESIÓN ORDINARIA DE 26/02/2026.

El acta de la sesión ordinaria de 26/02/2026 es ratificada por unanimidad de los presentes.

2.- EXAMEN Y EN SU CASO APROBACIÓN, DEL PROYECTO DE PRESUPUESTO ORDINARIO PARA EL EJERCICIO 2026.

Se ha procedido al examen del presupuesto ordinario y correspondientes bases de ejecución de esta Corporación y de los entes dependientes del mismo, Ikastola Municipal de Baztan y Residencia de Ancianos y Jubilados Francisco Joaquín de Iriarte, así como la previsión de gastos e ingresos de las empresas públicas Giltxaurdi SL, Lixura Baztan SL y Zaintza Lanak Baztan SL, para el ejercicio 2026.

Explicados los antecedentes, así como los motivos y consecuencias del mismo, exponiendo los Corporativos, sobre el punto de referencia, sus opiniones al efecto y recogidas en el archivo de audio de la presente sesión.





SINATZAILEA

Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2026/04/20

NIF: P3105000H

Espedientea 109952M

Alkateak bozkatzeko deia egin du eta 2/1995 Foru Legearen 202. artikulua araber, Udalbatzak aldeko 9 botorekin (EH-Bildu, Zurekin-Contigo Baztan), 2 kontra (UPN, Geroa Bai) eta abstentzio bat (Baztango Independienteak-Independientes de Baztan) **erabaki du:**

1.- **Hasierako onespena ematea** Baztango Udalaren eta beren mendeko diren Baztango Udal Ikastolaren eta Francisco Joaquin Iriarte Zahar-etxearen aurrekontu arruntari eta dagozkion gauzatzeko-oinarriari, bai eta Giltxaurdi SM, Lixura Baztan SM eta Zaintza Lanak Baztan SM enpresa publikoen 2026 ekitaldirako sarreraren eta gastuen aurreikuspenari ere.

Horien inguruko zehaztapenak horretarako ireki den espedientearen daude, honako saio honi dagokion espedientearekin batera artxibaturik.

2.- Aurrekontuari Osoko Bilkurak hasierako onespena eman ondoren, Idazkaritzan jarriko da **jendaurrean** hamabortz egun baliioduneko epean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta iragarki-oholean iragarri ondoren, auzotarrek edo interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak egin ahal izan ditzaten.

3.- Erreklamaziorik izanez gero, Osoko Bilkurak horien eta aurrekontuaren behin betiko onspenaren gaineko akordio zehatza hartuko luke. Erreklamaziorik ez balego, aurrekontuak behin betiko onartutzat emanen dira, jendaurreko epea igaro ondoren.

Pello Sarratea, Baztango Independienteak: aipatu bakarrak ni abstenituko naizela, ikusten dugulako falta direla aurrekontu horiei baiezkoa emateko, ez genuen ongi ikusten kontra ematea, aurrekontuaren ikusi dugu aldaketa bat izen dela, zuekin bildu ginen eta eskertzekoa da zuek ere disonible zinetela, horregatik abstenituko gara.

Lander Santamaria, Geroa Bai: Kontra bozkatuko dut. Sormen faltagatik eta eskualdeak sufritzen duen atzerapenarendako aurre egiteko neurririk ez dagoelako: 27 urtez jarraian heriotza gehiago izan ditugu jaiotzak baino, aktibitate falta dela eta arazo gero eta handiagoak, biztanleriaren zahartzea eta belaunaldi-erreleborik eza. Benetako inbertsioak gutxitzen ari dira, eta gauza bera gertatuko da datorren urtean ere, Adinekoen Egoitzaren erreforma finantzatzeko planteamendurik ez dagoelako; horrek

El alcalde llama a votar y según lo dispuesto en el artículo 202 de la Ley Foral 2/1995, el Pleno por 9 votos a favor (EH-Bildu, y Zurekin-Contigo Baztan), 2 en contra (UPN, Geroa Bai) y una abstención (Baztango Independienteak-Independientes de Baztan, acuerda:

1.- **Aprobar inicialmente** el presupuesto ordinario y correspondientes bases de ejecución de este Ayuntamiento del Noble Valle y Universidad de Baztan y de los entes dependientes del mismo, Ikastola Municipal de Baztan y Residencia de Ancianos y Jubilados Francisco Joaquín de Iriarte, así como la previsión de gastos e ingresos de las empresas públicas Giltxaurdi SL, Lixura Baztan SL y Zaintza Lanak Baztan SL, para el ejercicio 2026.

El detalle de los mismos obra en el correspondiente expediente incoado al efecto, que queda archivado junto al de la presente sesión.

2.- Aprobado inicialmente el presupuesto por el Pleno, **se expondrá** en Secretaría por período de 15 días hábiles, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón, a fin de que los vecinos o interesados puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen pertinentes.

3.- Si se formularan reclamaciones, el Pleno adoptará acuerdo expreso relativo a la resolución de aquéllas y a la aprobación definitiva del presupuesto. Si no se formularan reclamaciones, el presupuesto se entenderá aprobado definitivamente, una vez transcurrido el período de exposición pública.

Pello Sarratea, Baztango Independienteak: solamente comentar que yo me abstendré, porque vemos que para dar el sí a estos presupuestos falta, no veíamos bien oponernos, este año hemos visto que ha habido un cambio, nos hemos reunimos con vosotros y es de agradecer que estuvierais disponibles, por eso nos abstendremos.

Lander Santamaria, Geroa Bai: Voto en contra. Por la falta de creatividad y de medidas que aborden la recesión en la que está sumido el valle, 27 años seguidos con más defunciones que nacimientos, , envejecimiento de la población y ausencia de relevo generacional. Las inversiones reales se ven reducidas y ocurrirá lo mismo el año próximo por un inexistente planteamiento para financiar la reforma de la Residencia de Ancianos, que hipoteca el capítulo porque este ejercicio se va a llevar el 80% del total, cuatro millones de 4,92



SINATZAILEA

Baztango Udala Idazkarria
JULEN URBIOLA LOYARTE
2026/04/28

BAZTAN

2026/03/26ko Osoko Bilkurako akta - SEFYCU 309312

Egiaztapen-aseguru kodea: 7DAA AFHH VQK7 CLV4 VTWD



SINATZAILEA

Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2026/04/20

SINATZAILEA

Baztango Udal Idazkarria
JULEN URBIOLA LOYARTE
2026/04/28

aurrekontuko atal hori hipotekatzen du, izan ere, aurrekontuaren % 80 eramanen du (4,92 milioitik 4 milioi), eta milioi batekin baino ez da diruz lagundu, gainerakoa udalaren kontura. 35 kasuetatik 25etan aurreikusitako jarduketak 20.000 eurotik beheitikoak dira, eta horietatik 10, 5.000 eurotik beheitikoak; egia erran, ordezkapenak edo ekipamendua dira, eta ezin dira benetako inbertsiotzat hartu. Ez da baliabiderik sortzen, jarduera ekonomikoa gutxitzen ari da, eta beldugarria da lehenago edo beranduago hiri-eremuaren erdigunean hondoratutako eraikinen hondamendia ikusiko dugula; dagoeneko bada gutxienez kasu bat. Ez dago, Arizkunenea kultur etxearen muga arkitektonikoak gaindituko dituen kultura-gune baten planteamendurik, ezta haur eta nerabeendako ludoteka baten aipamenik ere, azken hauetaz erabat ahantzita. Eta badira bertze arrazoi batzuk ere. Horrenbestez, aurrekontuaren eta haren planteamenduaren kontra.

Fernando Anbustegi, Alkatea: guk alde egin dugu, aurrekontuetan sinesten dugulako. Aurrekontu baldintzatuak dira aurtengoak, batez ere zahar etxeko bigarren fasea, lau miloi euroko aurrekontua du fase horrek, eta hori da gaurkoan 9 bozkarekin onartu duguna, honen harira nabarmendu nahiko nuke aurrekontu honen kontra bozkatzek zer suposatzen duen, pena da, txalotzen dugu Baztango Independentiek taldearen abstentzioa, aurrekontu udal gobernu taldeak esfortzu bat egin dugulako, pixka bat ireki eta oposizioari eman diogu aukera aurrekontuetan parte hartzeko, proposamenak egiteko. Geroa Baik eta Baztango Independentiek proposamen batzuk egin dituzte eta ahal izan dugun neurrian proposamen horiek jaso ditugu aurrekontuetan, UPN ez du proposamenik egin eta kontra bozkatu du, Geroa Baik proposamenak egin ditu eta kontra bozkatu du. Aurrekontuen kontra bozkatzek ez du gobernu taldearen kontra bozkatzek suposatzen, baztandarren kontra baizik. Izan ere, dudarik gabe joko politikoa da hau, eta UPN eta Geroa Baik zilegitasun osoz bere politikarako joko hori baliatu dute kontra bozkatzeko, baina argi utzi behar da baztandarren kontra bozkatzek dutela, Baztan geldiaraztearen alde, Baztango Udalak aurrekonturik ez izatea bozkatu duzue eta horrek baditu ondorio batzuk, ez duzue nahi Baztango zahar etxea moldatzea, ez duzue nahi lau milioiko inbertsio bat egitea; ez duzue nahi ere aurrekontuetan dagoen 100 mila euroko partida hori garatzea, zahar etxeko enpresa publikoak

millones y subvencionada sólo con un millón y el resto a cargo del municipio. En 25 casos de los 35 las realizaciones previstas son inferiores a 20.000 euros, 10 menos de 5.000 euros, y es que en realidad son reposiciones o equipamiento, no se pueden considerar inversiones reales. No hay creación de recursos, disminuye la actividad económica y es de temer que más pronto que tarde vamos a ver la ruina de edificios hundidos en pleno casco urbano, y ya hay al menos un caso. Sin planteamiento de un espacio cultural que supere las limitaciones arquitectónicas de la casa de cultura Arizkunenea, ni mención a una Ludoteca que en materia de ocio y entretenimiento ponga fin al olvido absoluto de niños y adolescentes. Y hay otros motivos más.

En contra por lo tanto del presupuesto y de su planteamiento.

Fernando Anbustegi, Alcalde: nosotros votaremos a favor, porque creemos en estos presupuestos. Este año son unos presupuestos condicionados, sobre todo la segunda fase de la residencia de ancianos, que tiene un presupuesto de cuatro millones de euros, y eso es lo que hemos aprobado hoy con 9 votos, en este sentido me gustaría destacar lo que supone votar en contra de este presupuesto, es una pena, aplaudimos la abstención del grupo Baztango Independentiek porque este año hemos hecho un esfuerzo desde el equipo de gobierno municipal, hemos dado a la oposición la oportunidad de participar en los presupuestos para hacer propuestas. Geroa Bai e Independiente de Baztan han hecho algunas propuestas y en la medida en que hemos podido las hemos incluido en los presupuestos, UPN no las ha hecho y ha votado en contra, Geroa Bai las ha hecho y ha votado en contra. Votar en contra de los presupuestos no supone votar en contra del equipo de gobierno, sino en contra de los baztandarras. Y es que, sin duda, este es un juego político, UPN y Geroa Bai han utilizado con toda legitimidad han votado en contra, pero hay que dejar claro que votan contra los baztandarras, a favor de la paralización de Baztan, a favor de que el Ayuntamiento de Baztan no tenga presupuesto y eso tiene unas consecuencias, no quieren que se arregle la residencia de ancianos de Baztan, no quieren que se haga una inversión de cuatro





SINATZAILEA

Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2026/04/20

NIF: P3105000H

Espedientea 109952M

Zaintza Lanak, eguneroko lanean behar dituen 100 mila euro horiek jasotzeko; ez duzue nahi Baztan kiroldagian egin beharreko 200 mila euroko inbertsioa egitea, kontra errana dirudi Geroak Baik parlamentuan 87 mila euroko nominatiba izan eta, orain udaletxean, bere talde parlamentarioak erdietsitako nominatibaren kontra bozkatzea; ez duzue nahi Baztango ikastetxeetan 100 mila euroko konponketa lanak eta inbertsioak egitea... horixe oztopatu nahi duzue zuen kontrako bozkarekin. Eta nire ustez hori agerian gelditu behar da eta baztandarrek jakin behar dute, azken finean Baztango bizilagunen ongizatearen kontra bozkatu duzue.

Iñigo Iturralde, Zurekin Baztan: nahi genuen erran ere aurrekontu hauek laburbiltzen dutela baztandarrek eskatutako hainbat gauza, denak ez, ez delako posible, baina neurri haundi batean bai. Kontuan hartu behar da zahar etxearen bigarren fase honek aunitz lotzen gaituela, inbertsio edo ahalegin potentea egin behar dela, beharrezkoa dela, hala ere Fernandok erran bezala hezkuntza mailan, eskoletan eta bertze arlo aunitzetan egin behar dira inbertsioak, eta gero gure gastu arruntak mantendu eta gastu sozialetan ere partidak egon dira. Uste dugu ahalegin potentea ari garela egiten Baztandarren nahiak asetzeko eta uste dugu, aurrekontu hauek onak direla Baztandar guzientzat.

3.- 2026 URTERAKO PLANTILLA ORGANIKOA AZTERTU ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTU.

Aurrekariak azaldurik, arrazoiak eta ondorioak aurkezturik, Udalbatzako kideek aipatutako gaiaz beren iritzia azaldu dute, eta bilkura honi dagokion soinu fitxategian bildu dira, eta honela laburbiltzen dena:

Alkateak bozkatzeko deia egin du eta 6/1990 Foru Legearen 235. artikulua arabera, Udalbatzak aldeko 10 botorekin (EH-Bildu, Zurekin-Contigo Baztan, Geroa Bai), 1 kontra (UPN) eta abstentzio batekin (Baztango Independienteak-Independientes de Baztan, Geroa Bai) **erabaki du:**

1.- **Hasiera batean onestea** Baztango Udalaren plantilla organikoa, 2026. urterako, urtarrilaren leko ondorio ekonomikoekin. Horren xehetasunak horretarako irekitako espedientearen daude eta bilkura honi dagokion espedientearen artxibatu dira.

millones de euros, no quieren que la empresa pública de la residencia de ancianos reciba los 100 mil euros que necesita en su trabajo diario, no quieren que se haga una inversión de 200 mil euros en el polideportivo Baztan, parece que Geroa Bai vota en contra de la ayuda nominativa de 87000€ que su grupo parlamentario ha aprobado; no quieren 100 euros de reparación en los colegios. Y yo creo que esto debe quedar patente y los baztandarras deben saberlo, al fin y al cabo, habéis votado en contra del bienestar de los vecinos de Baztan.

Iñigo Iturralde, Zurekin Baztan: *queríamos decir que estos presupuestos resumen muchas cosas que los baztandarras piden, no todas, porque no es posible, pero en gran medida sí. Hay que tener en cuenta que esta segunda fase de la residencia nos ata mucho, hay que hacer una inversión o un esfuerzo potente, es necesario, pero como ha dicho Fernando hay que invertir en educación, en escuelas y en otros ámbitos, y luego se mantienen nuestros gastos corrientes y también habrá partidas en gastos sociales. Creemos que estamos haciendo un esfuerzo potente para satisfacer los deseos de los baztandarras y creemos, que estos presupuestos son buenos para todos los baztandarras.*

3.- EXAMEN Y EN SU CASO APROBACIÓN, DE LA PLANTILLA ORGÁNICA PARA EL EJERCICIO 2026.

Explicados los antecedentes, así como los motivos y consecuencias del mismo, exponiendo los Corporativos, sobre el punto de referencia, sus opiniones al efecto y recogidas en el archivo de audio de la presente sesión y que se resumen en:

*El alcalde ha llamado a votar, según lo dispuesto en el artículo 235 de la Ley Foral 6/1990, y el pleno por 10 votos a favor (EH-Bildu, Zurekin-Contigo Baztan y Geroa Bai), 1 en contra (UPN) y una abstención (Baztango Independienteak-Independientes de Baztan), **acuerda:***

1.- **Aprobar inicialmente** para el año 2026 y con efectos económicos de uno de enero del mismo la Plantilla Orgánica del Ayuntamiento del Noble Valle y Universidad del Baztan, cuyo detalle obra en el expediente incoado al efecto y que queda archivado en el de la presente sesión.



BAZTAN

Egiaztapen-aseguru kodea: 7DAA AFHH VQK7 CLV4 VTWD

2026/03/26ko Osoko Bilkurako akta - SEFYCU 309312



SINATZAILEA

Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2026/04/20

NIF: P3105000H

Espedientea 109952M

2.- Funtzionarioen, lan-kontratadun finkoen, aldi baterako eta behin-behineko administrazio-kontratadunen izenen zerrendak **oneste**a, 2026ko urtarrilaren lehenari dagozkienak.

3.- Plantillari Osoko bilkurak hasierako onespena eman ondoren, Idazkaritzan jarriko da **jendaurrean** hamabortz egun balioduneko epean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta iragarki-oholean iragarri ondoren, auzotarrek edo interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak egin ahal izan ditzaten.

4.- Erreklamaziorik izanez gero, Osoko Bilkurak horien eta Plantillaren behin betiko onespeneren gaineko akordio zehatza hartuko luke. Erreklamaziorik ez balego, Plantilla behin betiko onartutaz emanen da, jendaurreko epea igaro ondoren.

4.- HIRI-JARDUKETARAKO PLAN BEREZIA ZIGAKO 5. POLIGONOKO 2 LURSAILEAN, APEZETXEA ETXEAN, ZIURBAMI PROMOCIONES SLK SUSTATUA. HASIERAKO ONESPENA.

Ikusirik Zigako 5. poligonoko 2. lurzatian, Apezetxea etxean, Ziurbami Promociones, S.L.k sustaturiko hiri jarduketa plan bereziaren proiektua.

Ikusirik Baztango Udaleko arkitekto aholkulariaren txostena (2603i022 erreferentzia), zeinean erraten baita hura egokitua dagoela Nafarroako Foru Komunitateko hirigintza-legerian aurreikusita dauden xede eta eginkizunetara, eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 61. eta 62. artikuluek aipaturiko dokumentazioa biltzen duela.

Udalbatzak, bertaratutako guztiak bat etorrita, honako hau **erabaki du**:

1.- **Hasiera batez oneste**a Zigako 5. poligonoko 2. lurzatian, Apezetxea etxean, Ziurbami Promociones, SLk sustatua, eremua hirigintzaren aldetik garatzeko egikaritze-unitate bat zehazteko, Baztango Udaleko arkitekto aholkulariaren txostenaren (2603i022 erreferentzia) arabera.

2.- **Aprobar** las relaciones nominales de funcionarios, de personal laboral fijo de régimen laboral, de personal temporal en régimen administrativo y eventual, referidas a 1 de enero de 2026.

3.- Aprobada inicialmente la Plantilla por el Pleno, **se expondrá** en Secretaría por período de quince días hábiles, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón, a fin de que los vecinos o interesados puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen pertinentes.

4.- Si se formularan reclamaciones, el Pleno adoptará acuerdo expreso relativo a la resolución de aquéllas y a la aprobación definitiva de la Plantilla. Si no se hubiesen formulado reclamaciones, la Plantilla se entenderá aprobada definitivamente, una vez transcurrido el período de exposición pública.

4.- PLAN ESPECIAL DE ACTUACIÓN URBANA EN LA PARCELA 2 DEL POLÍGONO 5, CASA APEZETXEA DE ZIGA, PROMOVIDO POR ZIURBAMI PROMOCIONES SL. APROBACIÓN INICIAL.

Visto el proyecto del plan especial de actuación urbana en la parcela 2 del polígono 5, casa Apezetxea de Ziga, promovido por Ziurbami Promociones SL.

Visto el informe del arquitecto asesor del Ayuntamiento de Baztan (ref. 2603i022), sobre su adecuación al objeto y funciones previstas en la legislación urbanística de la Comunidad Foral de Navarra y que reúne la documentación a que se refiere los artículos 61 y 62 del Decreto Foral Legislativo 1/2017, de 26 de julio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo.

El Pleno, por unanimidad de los presentes, **acuerda**:

1.- **Aprobar inicialmente** el plan especial de actuación urbana en la parcela 2 del polígono 5, casa Apezetxea de Ziga, promovido por Ziurbami Promociones SL, para definir una unidad de ejecución para desarrollar urbanísticamente el ámbito, según el informe del arquitecto asesor del Ayuntamiento de Baztan (ref. 2603i022).



SINATZAILEA

Baztango Udal Idazkaria
JULEN URBIOLA LOYARTE
2026/04/28

BAZTAN

2026/03/26ko Osoko Bilkurako akta - SEFYCU 309312

Egiaztapen-aseguru kodea: 7DAA AFHH VQK7 CLV4 VTWD



SINATZAILEA

Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2026/04/20

NIF: P3105000H

Espedientea 109952M

2.- Hilabetez jendaurrean paratzea aipatu hiri-jarduketarako plan bereziaren proiektua, Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Nafarroako egunkarietan eta udal honen egoitza elektronikoa hasierako onespeneren iragarria argitaratzen denetik hilabeteko epean. Jendaurrean egon bitartean edo-nork aztertzen ahalko du hiri jarduketarako plan berezia, baita bidezko diren alegazioak aurkeztu ere.

2.- Someter dicho plan especial de actuación urbana a un período de información pública por un plazo de un mes, desde la publicación del anuncio de la aprobación inicial en el Boletín Oficial de Navarra, en los diarios editados en Navarra, así como en la sede electrónica de este Ayuntamiento. Durante el período de información pública podrá examinarse el plan especial de actuación urbana por cualquier persona y formularse las alegaciones que procedan.

5.- BAZTANGO UDALA GURE MENDIA ELKARTEARI ATXIKITZEA.

2026ko otsailaren 22ko osoko bilkuran, bertaratuek aho batez erabaki zuten Ainhoa, Azkaine, Baztan, Bera, Biriatsu, Ziburu, Etxalar, Senpere, Sara, Urdazubi, Urruña eta Zugarramurdiko udalak bilduko dituen 1901. legearen arabera sozietate bat sortzea, biodibertsitatea eta baterako baso-ondarea indartzeko.

Orain, udaleko osoko bilkurari zuzendutako proposamenean, Baztango Udalak GURE MENDIA elkarteko kide izatea onartzea eskatzen da. GURE MENDIA elkartearen helburua da mugaren bi aldeetako toki-administrazioek mendien kudeaketa koordinatzea.

Aurrekariak azalduta, arrazoiak eta ondorioak aurkeztuta, Udaltzako kideek aipatutako gaiak bere iritzia eman ondoren eta bilkura honi dagozkion soinu fitxategian bildutakoak.

Alkateak bozkatzera deitu du, Udaltzako bertaratutakoen aho bateko adostasunez honakoa **erabaki du**:

1.- Ainhoa, Azkaine, Baztan, Bera, Biriatsu, Ziburu, Etxalar, Senpere, Sara, Urdazubi, Urruña eta Zugarramurdiko udalak bilduko dituen 1901. legearen arabera GURE MENDIA elkartearen estatutuak **oneste**.

2.- Alkatetzari **baimena ematea** GURE MENDIA elkarteko kide izateko behar duen dokumentazio guztia sinatzeko.

3.- Honako ordezkari hauek **izendatzea**:
Titularra: Baztango Udaleko mendietako zinegotzia

Ordezkoa: Baztango Udaleko alkatea

4.- Erabaki hau interesdunei **jakinaraztea**, jakinaren gainean egon daitezen eta dagozkion ondorioetarako.

5.- ADHESIÓN DEL AYUNTAMIENTO DE BAZTAN A LA ASOCIACIÓN GURE MENDIA.

En sesión plenaria de 22 de febrero de 2026 el pleno por unanimidad de los presentes acordó dar apoyo a la creación de una sociedad bajo la ley 1901 que agrupe a los ayuntamientos de Ainhoa, Azkaine, Baztan, Bera, Biriatsu, Ziburu, Etxalar, Senpere, Sara, Urdazubi, Urruña y Zugarramurdi, con el fin de fortalecer la biodiversidad y patrimonio forestal conjunto.

Ahora en propuesta dirigida al pleno del ayuntamiento se solicita que se apruebe la pertenencia a GURE MENDIA elkarte por parte del ayuntamiento de Baztan. GURE MENDIA elkarte tiene como objetivo la coordinación en la gestión de los montes por parte de las administraciones locales sitas a ambos lados de la muga.

Exponiendo los corporativos, sobre el punto de referencia, sus opiniones al efecto y recogidas en el archivo de audio de la presente sesión.

Alcaldía llama a votar, el pleno por unanimidad de los presentes **acuerda**:

1.- **Aprobar** los estatutos de GURE MENDIA elkarte para la creación de una sociedad bajo la ley 1901 que agrupe a los ayuntamientos de Ainhoa, Azkaine, Baztan, Bera, Biriatsu, Ziburu, Etxalar, Senpere, Sara, Urdazubi, Urruña y Zugarramurdi, con el fin de fortalecer la biodiversidad y patrimonio forestal conjunto.

2.- **Autorizar** a alcaldía para la firma de cuanta documentación fuera precisa a fin de poder ser miembro de GURE MENDIA elkarte.

3.- **Nombrar** a los siguientes representantes:
Titular: Concejal de montes del Ayuntamiento de Baztan

Suplente: Alcalde del Ayuntamiento de Baztan

4.- **Notificar** el presente acuerdo a los interesados, para su conocimiento y efectos oportunos.



SINATZAILEA

Baztango Udala Idazkaria
JULEN URBIOLA LOYARTE
2026/04/28

BAZTAN

2026/03/26ko Osoko Bilkurako akta - SEFYCU 309312

Egiaztapen-aseguru kodea: 7DAA AFHH VQK7 CLV4 VTWD



SINATZAILEA

Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2026/04/20

NIF: P3105000H

Espedientea 109952M



SINATZAILEA

Baztango Udala Idazkaria
JULEN URBIOLA LOYARTE
2026/04/28**GALDE- ESKEAK**

Lander Santamaria, Geroa Bai: Liburutegiko berririk?

Fernando Anbustegi, Alkatea: Itxita segitzen du, berririk ez. Saiatu gara eta ez dugu erantzunik, beti erraten datzutena, zure alderdia gobernuan dago eta behar bada zure aldetik bertze presio bide bat egin dezakezu, bertze hainbat gaietan egiten ahal duzun bezala gu ari gara saiatu eta saiatu eta ez dugu erantzun desberdinik, animatzen zaitut zu ere lanean hastera edo segitzera.

Pello Sarratea, Baztango Independienteak: Nik betikoa, Lekarozko kanpusen gainean berririk baduzuen, badakit solasean zinetela, azkeneko aldian erran zenuen nahi zenuetela zerbait konkretuago, ekonomikoa edo, ea mugitu den zerbait ere.

Fernando Anbustegi, Alkatea: Bildu gara pare bat aldiz industria departamentuarekin, azkena astelehen arratsaldean, joan nintzen industria kontseilariarengana, uste nuen behingoan utziko zuela bere jarrera jolastia, baino nire harridurarako berriz adarra jotzen, ez dugu deus konkretatu.

Lander Santamaria, Geroa Bai: Iruritako enkantea...

Fernando Anbustegi, Alkatea: Egin zen, eskaintza bat aurkeztu zen, ondoko egunetan esleituko da. 17.900 zen hasierako eskaintza 19.500 edo horrela eskaini dute, Aroz Berrik egin du eskaintza. Bakarra izan da eta ondoko egunetan esleituko zaio.

Jarraian, alkate-udalburu jaunak bilkura amaitutzat eman du 19:30ean. Idazkari gisa, horren guztiaren fede ematen dut.

ALKATEA
EL ALCALDE

RUEGOS-PREGUNTAS

Lander Santamaria, Geroa Bai: ¿Noticias de la biblioteca?

Fernando Anbustegi, Alcalde: Sigue cerrado, sin noticias. Lo hemos intentado y no tenemos respuesta, lo que siempre digo, tu partido está en el gobierno y si hace falta puedes hacer otro tipo de presión por tu parte, como puedes hacer en otros temas nosotros lo intentamos y lo intentamos y no tenemos respuestas diferentes, te animo a que empieces o sigas trabajando también.

Pello Sarratea, Baztango Independienteak: Yo lo de siempre, si tenéis noticias sobre los campus de Lekaroz, sé que hablasteis, la última vez dijisteis que queríais algo más concreto, económico o, incluso, si algo se ha movido.

Fernando Anbustegi, Alcalde: Nos hemos reunido un par de veces con el departamento de industria, la última el lunes al atardecer, fui al consejero de industria, pensé que de una vez por todas dejaría su actitud de jugar, pero para mi sorpresa nos ha vuelto a tomar el pelo, no hemos concretado nada.

Lander Santamaria, Geroa Bai: La subasta de Irurita...

Fernando Anbustegi, Alcalde: Se hizo, se presentó una oferta, se adjudicará en los próximos días. La oferta inicial de 17.900 han ofrecido 19.500 o así, ha sido ofrecida por Aroz Berri. Ha sido el único y se le adjudicará en los siguientes días.

Seguidamente, por el Sr. alcalde se levanta la sesión, siendo las 19:30 horas, de todo lo cual, como secretario doy fe.

IDAZKARIA
EL SECRETARIO

